

noaua



ARTISAUEN LANAZ GOZATZEKO EGUNA IRITSI DA

Usurbilgo XXVIII. Artisanu Azoka ostiral honetan ospatuko da / 06-07

ARGAZKIA: NOAUA



EUSKARALDIA

Euskaraldia udaberrian egingo da, maiatzaren 15etik 25era / 05



NOAUA

Donostiako Plan Orokorraren berri eman zuten Zubietan / 15




GOIENA

'Konkiskatik asimilaziora', larunbat honetan Sutegin aztergai / 16



BASQUE TEAM

Nahia Zudaire: "Nire helburuak bete nituen Paralinpiar Jokoetan" / 18



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



Japón

IRTEERA 2025eko martxoan

Noaak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaok.eu • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

urriak 24 - azaroak 14



errigora.eu



Eman bultzada,
indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka

Sorgina Txirulina, Aginagako Eliza Zaharrea

Bizkaitar artistak 'Musikaren bidaia' izeneko ipuin kontaketa saioa eskaini zuen iragan astean Eliza Zaharrea.

Ostegun honetan, 'Beldurrezko ipuina' Aginagan

Antxomolantxa elkarteak ekitaldi berri bat iragarri du ostegun honetarako, 'Gau Beltza' egunerako. Ixabel Agirresarobe gonbidatu dute eta 'Beldurrezko ipuina' kontakutuko die bertaratzen diren guztiei. Ostegun honetan, urriak 31, 17:00etan hasita. Sarrera doan izango da.



"Musikaren bidaia" izeneko ipuin kontaketa eskaini zuen Eliza Zaharrea. Ostegun honetan, Ixabel Agirresaroberen txanda.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Urriaren 31tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarikgabe. Azaroaren 7an osteguna, garbigune mugikorra Txokoaldera eramango dute.

1975ko kinto bazkaria Artzabalen egingo da

Azaroaren 17an igandearrekin batuko dira Artzabalen, eguerdiko 14.00etan. Izena aurretik eman beharko da eta horretarako azken eguna azaroaren 14a izango da.

Izen-ematea ondorengo telefono zenbakietara deituz egin behar da: 645 711 033 / 688976760.

1973ko kinto bazkaria, Atxega jauregian

1973ko kinto bazkaria azaroaren 16an ospatuko da, Atxega jauregian.

Izena emateko, bi telefono zenbaki hauek batera deitu behar duzu: 606 647 115 (Mikel) edo 600 648 889 (Marimar).

Izena emateko epea azaroaren 12an bukatuko da.

Dantza garaikideko ikastaroa Oiardo kiroldegian

Saioak asteazkenero izango dira 19:00-20:30 artean Oiardo kiroldegian. Ikastaroa urriaren 23an hasi eta ekainera arte luzatuko da. Izena emateko epea azaroaren 8ra artekoa izango da. Eta horretarako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 647 893 086 (Eneko).

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibildidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARNALDE

Bakearen Nobel Saria 2024

Si vis pacem, para bellum (bakea nahi baduzu, presta gerra), zen erromatarren ikurritza. Urtero urriaren erdi aldera ematen da Bakearen Nobel Saria. Aurten 'Nihon Hidankyo' gobernuz kanpoko erakunde saritu dute. Zergatiaren arrazoiak ez dauka zerikusirik erromatarren filosofia horrekin, alderantziz hain zuzen. Erakunde honek sekulako lana egiten du arma nuklear guztiak desagertuz, arma nuklearrik gabeko mundu bat eraiki dezagun. Gainera, ez da lehen aldia aurkezten dela: 2005ean Bonbardaketaren 60. urteurrena zen eta saria irabazteko hautagai nagusietako bat izan zen.

Nihon Hidankyo erakunde hau 1956ko abuztuaren 10ean sortuzen, 1945ean Estatu Batuak Hiroshima eta Nagasakiren aurka botatako bonbetatik bizirik aterata zirenen konfederazio japoniar gisa. Armen kontra borrokatzeaz gain, biktimentzako konpentsazioak eta laguntzak lortzen bizikaritu dira.

Epaimahaiaren esanetan, erakunde honek erakutsi du "testigantzen bitartez, munduak ez lukeela berriz arma nuklearrik erabili behar". Talde hau Hiroshima eta Nagasakin jaurtitako bonba nuklearretatik bizirik aterata zirenek osatzen dute eta behin eta berriz arma horiek abolitzeko eskatzen dute. Gogoan izan, bi bonba haiek ia 200.000 pertsona hil zituztela segundo



Aurten 'Nihon Hidankyo' erakunde japoniarra saritu dute.

gutxitan. Eta bonba haiek peltardo batzuk besterik ez ziren gaurko nuklear buruekin konparatuta. 13.000 lehegailu nuklear baino gehiago daude bederatzi bat naziotan eta lehegailu horietako bakoitzak Hiroshimakoak halako mila indar du. Pentsa ze txikizio gertatuko litzatekeen horiek botaz gero. Gizartearen edo gutxienez agintari batzuen zentzugabekeriak ez du neurririk.

Nobel Batzordeak, besteak beste, hau oroitarazi digu: 1945ean mugimendu global

"ARMA ATOMIKOEN KONTRA BORROKATZEAZ GAIN, BIKTIMENTZAKO LAGUNTZAK LORTZEN ARITZEN DA"

bat sortu zela Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketaren ondoren. Laurogei urte hauetan ez da beste arma nuklearrik erabili. Saria abenduaren 10ean iritsiko zaie: diploma eta 900.000 mila euro.

Sari hau jaso ondoren, gure hitzek eragin edo pisu handiago izango dutela uste dute, erakundearen ordezkariaren esanetan. "Gu zahartzen ari gara, batzuetan adina 85 urte ingurukoa da. Baina hurrengo belaunaldia badugu" azpimarratu du taldeko ordezkariak. "Nigerren aurkanago", nabarmendu du. Erakunde honen beste zereginetako bat bonba atomikotik bizirik aterata zirenen oroimena gordetzea da, haien kontakizun eta legatuen bilduma zehatza eginez.

Bukatu aurretik, bi gauzatxo gogorarazi nahi nizkizueke. Bata: beste behin ere foro honetan esan nizuena euskaldunok ere badugula Bakearen Nobel Sari bat. René Cassin hain zuen ere. Baionan jaioa, abokatua eta Giza Eskubideen Azalpen Unibertsala berak idatzi zuen Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Bestea: iazko Nobel Sariaz idatzi nuen NOAUA!n. Irango neska aktibista bati eman zioten: Narges Mohamadiri. Emakumeen eskubideak defendatzen biziki ari den kolektibo baten buru da. Lehengo urtean kartzelan zegoen saria eman ziotenean eta bere kalbarioak berdin jarraitzen du.

"Geuretik sortuak" beka deialdiaren edizio berria martxan

Udalbiltza Partzuergoak "Sormen, ekoizpen eta hedapen" hirugarren beka deialdiko oinarriak kaleratu ditu. Gogoan izan, egitasmo honetako parte hartzaileek Euskal Herriko herri batean eginiko bizpahiru asteko egonaldian sorkuntza lan bat bideratzeko aukera izango dute; komiki (15-20 orrialdekoa), antzerki, zine (20-25 minutuko filma) edo literatura obra bat (30.000-40.000 karakterekoa).

Eskaerak Partzuergoko erregistro nagusian (Oiertzungo Udala, Doneztebe plaza, 1. 20180, Oiertzun) aurkeztu ahalko dira edo telematikoki, udalbiltza.eus atariko formularioa osatuta. Informazio gehiago, urriaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso ahalko duzue.

"Zaintzaren pedagogia" solasaldia Emakumeon Etxean

Gai hau hizpide izango duen solasaldia antolatu du Emakumeon Etxeak azaroaren 7rako, arratsaldeko 18:00etan. Nora Salbotx irakasle eta idazleak "Zaintzaren pedagogia" izeneko saioa eskainiko du. "Urte luzez, zaintzaren esparrua gutxietsia izan da hezkuntzan. Gaur badakigu, feminismoaren ekarpenari esker, zaintza hezitzailea dela eta zaintzaren pedagogia patriarkatua eraisteko heziketa guneetan baliatu beharreko tresna dela".

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ANDATZA TABERNA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
8:00-20:30 Asteleheneetik - Asteazkeneira
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera
Kalezar Auzoa 12, OB, USURBIL. Tel 943 36 04 66

ARANKA
BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltzeritza orokorra
722 297 867 USURBIL



Euskaraldiaren sustatzaileak, irudi eta lelo berria eskuartean dutela, Iruñeako aurkezpenean. ARGAZKIA: EUSKARALDIA.

Euskaraldia eraginkortzeko erronka

Estreinakoz 2025eko maiatzean egingo den laugarren Euskaraldia aurkeztu dute, irudi eta lelo berriarekin. Prestaketeki hasiera ofiziala eman diete modu honetan.

Euskaraldiaren eraginkortasunean sakontzeko urrats berriak proposatzea; mugimendua indartzeko eta batzordeak elikatzeke urratsak ematea; eta, hirugarrenik, Euskaraldiaren inguruko giro soziala sustatzea. Erronka hauen bueltan aurkeztu dute 4. Euskaraldia, irudi eta lelo berriarekin; "Elkar mugituz egingo dugu". Laugarren edizioa, "Euskaraldia gaindituko duen Euskaraldia" izatea nahi dute. Oraingo hau, estreinakoz,

maiatzaren 15etik 25era egingo da. Izan ere, sustatzaileen esanetan, "gizarte bizitza gehiago dagoen garaian esku hartu nahi du ekimenak, baldintza sozial egokiagoak dauden garaian hain zuzen, harreman sozialetan ahalik eta astinaldi handiena eragiteko, beti ere hizkuntzaren begiratutik". Antolatzaile askok aipaturikoa egikaritzea erabaki dute, beraz, "ariketa soziala udazken betean beharrez, udaberriantolatzea".

Dinamikaren hedapena

Egutegiari dagokionean, "hamaika egunen bueltakoa izatea hobetsi da, bi asteburu hartuz, uste baitugu egun gutxiagotan ariketa modu sakonagoan egiteko aukera emango diela belarriprest eta ahobiziei, indarrak egun horietan bilduta". Halere, gogorazi dutenez, "ez dugu nahi Euskaraldia hamaika egunetara mugatzen den ariketa soziala izan dadin soilik". Horregatik, diotenez, "zabaldu nahi dugu dinamika, denboran eta gizartearen. Euskararen erabilera aktibatuko duen mugimendua elikatu nahi dugu". Sakonago jota, ariketa sozial hau birdefinitzea erabaki dute. Euskaraldia, beraz, aurrerantzean, "euskararen erabilera aktibatzeke mugimendua" izango da. Egiteko nagusien artean izango dute, hizkuntza-ohituren inertziak astindu eta herrita-

rrek zein entitateek euskara gehiago erabiltzeko neurriak hartzea; euskararen erabilera aktibatzeke mugimendua elikatzea; edota "tokian tokiko euskalgintza aktibatzea eta lankidetzan aritzea".

Eraginkorra

Aldaketa hauek 320.000 parte hartzaile baino gehiagoren aurreko edizioetako balantzeetatik jasotakoak dira. Gogoeta prozesu horietatik hainbat gako nabarmendu nahi izan dituzte antolatzaileek. Esaterako, Euskaraldiak euskararen erabilerean handitzean eragiten duela, "lehen hitza euskaraz egitea eta elkarrizketa elebidunei eustean, adibidez". Ondorioztatu ahal izan dute baita, hizkuntza-komunitate osoa batzen duela, erabilera-mota batzuk hedatu eta legitimatu, nazioartean interesa sortu, erdaldunen-gana heldu, euskaraz informatu eta hausnartzea sustatzearekin batera. Baina era berean, Euskaraldiaren eragin-esparrua mugatua dela diote. Datorren ediziora begira, "ariketa ahalik eta ondoen prestatzea komeni da", ohar-tarazi dute eta gako garrantzitsua izaten segiko du txapen erabilera masiboak. Euskaraldi horri begira, gobernantza eredu partekatuan sakontzen segi asmo dute.

DATORREN EDIZIORA BEGIRA, "ARIKETA AHALIK ETA ONDOEN PRESTATZEA KOMENI DA"

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTA PAX 7, 943 54 37 94

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42



Eider Makazaga eta Irati Gabellanes, haien sortze lan bildumaren lagin batekin.

"Lotsa alboratu eta sormena plazara atera behar dugu"

JOSUNE ESTELLA, IRATI GABELLANES ETA EIDER MAKAZAGA ARTISAUAK

Eskularen, eskuz eginiko sorkuntza lanen, egileen eta zaletuen topagunea izango da azaroaren lehena Usurbil, Aitzaga Elkarrean antolatutako 28. Artisan Azokari esker.

Eskuz landutako denetarik produktuaren erakustokian bilakatuko da herri hau beste behin, azaroaren lehenean. Artisanen eta artisautza estimatzen dutenen topagunea izango da Usurbil ostiral eguerdian, Aitzaga Kultur Elkarrean antolatutako 28. Artisan Azokarekin.

Postuaren alde banatan daudenak hartuemanetan jartzeko aukera paregabea izango da aurtengoan ere. "Hogeita hamar postu inguru izango dira: bitxigintza, kosmetika, egur-lanketa, zeramika, otarregintza, metalgintza...", aurreratu dute antolatzaileek. Horrekin ba-

tera, erosketak ere egin ahaliko dira, talo goxoak dastatzeaz gain.

Garai batean, frontoian soilik egiten zuten azoka azken urteotan eremuz zabaltzen joan dira. Duela bi urte, Dema plazara hedatu zuten azokaren gunea, iaz Askatasuna plazako estal-

"2020AN HASI NINTZEN IKASTEN ETA ZALETASUN HANDIA PIZTU ZITZ AidAN"

JOSUNE ESTELLA

pera baita. Aurten ere hala-xe egingo dute.

"Nire meditazio momentua da" Postuetan barrera egin ahaliko den osteratxoan, tokiko sorkuntza lanak ezagutzeko aukera izango dugu. Bi herri marka eta horien atzean dagoen lanketari lotutako leku-

"JONEREGIN OINARRIA LANTZEN DUT POTXOENEA. JOSTEKO TEKNIKAK IKASTEN DITUT"

JOSUNE ESTELLA

kotzen berri duzue lerrootan; "Xükä" ("xuka_eskuz_egina) eta "Eiti Eskulanak" (@eiti_eskulanak) izenekoena. Bada bien artean lotura emozionalik ere, ama-alabak daude eta tartean eta haien bidez, azken urteotan nabarmen gaztetzen doan zaletasun bat; joskintzarena.

"Xükä" marka Josune Estella Arranzen sortze lanena da, agurtu behar izan zuten txakurraren omenez jarritako izena. NOAUA!ri adierazi dienez, "fofutxak" izeneko panpin pertsonalizatuak egiten ditu enkarguz. Modu berean aritzen da bereziki, bere artisautza lan nagusian, joskintzari lotutakoan. "Poltsak, nezeserrak, estutxe txikiak, lepokoak..." egiten ditu, baita "arropa senideentzat". Jarraian hauek murgildu izan ziren bat baino gehiago covid19ak eragindako osasun krisialdi batean, ohi baino denbora gehiago etxean igaro behar genuen garaian. Birus ezezagun batek etxeratu gintuela ez genekien 2020ko konfinamendu orokor haren aurretik hasi zen Josune trebatzen, Zarauzko ikastaro batean. "Ama jostuna izan da. Beti saiatu da guri joskintzarako zaletasuna transmititzen, baina ez zuen lortu. Konfinamenduaren urtean, Zarautzen hasi nintzen ikasten eta zaletasun handia piztu zitzaidan", oroitarazi digu Estellak. Horri segida emateko, Zubietako Jone Iruretagoiena azken urteotan Potxoenean eskaintzen ari den trebakuntza saioretan parte hartzen hasi zen eta "berarekin jarraitzen dut". Ikastaroan zehar, azaldu digunez, "berarekin, batez ere, arropa egiten dut. Oinarria lantzen dut, josteko teknikak ikasten ditut". Hortik aurrerako sormena lagunekin partekatzen duen horretatik edo saretik jasotzen du.

Bere sortze lanen ezaugarriei buruz galdetuta, nabarmendu digunez, "batez ere, praktikoak dira. Horrez gain, lanak ondo

errematatzea nahi izaten dut". Joskintzak zer ekarpen egiten dion galdetuta, "lasaitasuna, erronkak jartzea... Adimen emozionalarekin lotzen dut. Niretzat, joskintza nire meditazione momentua da, zentratzen laguntzen dit eta gero, oso ondo sentitzen naiz. Gainera, ikusten baduzu sortzen ari zaren hori ondo ateratzen dela, ederra da".

"Izugarrizko lana dago atzean"

Urrats berri bat ematera doa orain; estreinakoz, azaroaren 1eko Artisau Azokan ikusgai jarriko du orain arte egindakoa. "Iaz esan nuen egingo nuela baina lotsagatik esan nuen ezetz. Baina konturatzen naiz gauzak egiten ditudala eta hor uztekotan, nahiago dut jartzea postu batean. Lotsa alboratu eta sormena plazara atera behar dugu", adierazi dio Estellak NOAUA!-ri. Halako azokak oso gustuko ditu eta garrantzitsutzat jotzen ditu, "artisaunen lana ezagutu eta egiten dutena partekatzeke. Izan ere, "bizitza ematen dute azoka hauek. Haien gaitasuna ari dira partekatzen gurekin, hori oso garrantzitsua da". Baita ikusten ez dugun sorkuntza prozesuaren ezagutza ere. "Askotan entzuten dugu, ze garestiak diren gauza horiek. Baina izugarrizko lana dago horren atzean. Materiala ere ez da merkea".

Txikitatik

Gaztetzen doan jarduera da honakoa. "Amaharrituta dago. Ilusioa egiten dio egindakoa ikustea. Epaile onenak haiek dira". Josune ostiraleko Artisaun Azokako postuetako batean aurkituko duzue; beste batean, bere alaba Eider Makazaga. Irati Gabellanes lagunarekin batera ere estreinakoz parte hartzera doaz azaroaren 1eko Aitzaga elkar-tearen ekimenean. Denetarik aurkituko omen dugu haien eskaintzan. "Belarritakoak,



"Xükä" da Josune Estella Arranzen sortze lanen izena. Azaroaren 1eko azokan bere joskintza lanak ikusgai jarriko ditu.

kakorraz-lanez eginiko poltsak, makramea, ilustrazio batzuk... Azkenean, gustuko ditugun sorkuntza lan guztiak". Batxilergo artistikoa egindako Eider hasi zen bere kabuz jarduera hauetan. "Barne diseinua eta ilustrazioak egitea beti gustuko izan dut". NOAUA!ri azaldu diotenez, "kakorraz-lanena, azken hilabeteotako kontua izan da. Koadrilako bat dugu oso trebea eta beraren bidez hasi ginen". Egun baden aplikazio espezifiko baten bidez ere inspiratzen dira. "Ez gara adituak baina ikusten dugunarekin sortzen saiatzen gara. Egiten hasi eta bapatean poltsa bat sortu duzu".

Zaletzen joan dira azken urteotan, baina txikitatik ari-tuak dira pultserak egin eta maindire baten gainean ikusgai jartzen. Orain, "beste pro-

"IZUGARRIZKO LANA DAGO HORREN ATZEAN. BEHARREZKO MATERIALA ERE EZ DA MERKEA"

EIDER ETA IRATI

fesionaltasun maila bat eman nahi diogu" jarduerari. Irudia ere sortu dute; eskuz altxa gabeko marra bakarrez eginiko lore bat.

"Bakarrak"

Senide eta lagunentzat egin dituzte sorkuntza lanok. Orain, estreinakoz jendaurrean erakustera doaz, azaroaren 1eko Artisau Azokan. Aldez aurretik, ordea, haien Instagram kontuan erakusgai jartzen hasi dira, "jendeak ikusteko zer egiten dugun eta etor daitzkeen enkarguetarako. Gure asmoa, azokaz haratago gauza gehiago egitea da. Ea gustatzen zaigun eta animatzen garen beste tokietara joatea. Pixkanaka ikusten joango gara". Argi dutena da, ostiraleko hitzorduak egingo dien ekarpena. "Ederra da gremio bereko jendea ezagutzea. Ask

"LEHENTASUNA EZ DA SALTZEA, ONDO PASA ETA ESPERIENTZIA BERRI BAT BIZITZEA BAIZIK"

EIDER ETA IRATI

ikasten da besteengandik ere. Interesgarria da besteen lana ikustea, norberarena gainera-koekin partekatzea". Gehiago baloratu beharreko sektorea da honako hau, elkarrizketatuen esanetan. Izan ere, artisautzak, gogorarazi duenez, "ez du lan prozesu bera. Eskuz, mantso, maitasunez egindako produktuak dira" eta nabarmendu digutenez, "bakarrak". Hain zuzen, "antzeko produktuak egin ditza-kezu baina inoiz ez da berdina aterako. Horregatik, eskuratzen dena produktu bakarra da". Errepikaezina.

Ama azokan parte hartzera animatu ondoren, "ordu- an esan genuen, zergatik ez? Esperientzia berri bat izango da, barrutik nola den bizit- zeko. Beti estimatu izan ditugu eskuz eginiko lanak. Orain beste aldetik biziko dugu hori guztia". Jo eta su ari dira prestaketa lanetan egunotan, "egunero hitz egi- ten, hutsuneak geratzen ba- zaizkigu zer egin erabakitzen". Azoka egunerako argi dute; "lehentasuna ez da saltzea, ondo pasa eta esperientzia berri bat bizitzea baizik. Jen- deak ikustea zer lan egiten dugun". Sormena plazara aterako dute.



Dani Iglesias musikari eta gitarra irakaslearekin grabatu du Larrak 'Bizi' izeneko kanta.

"Harrituta gaude 'Bizi' kantak izan duen oihartzunarekin"

DANI IGLESIAS ETA IÑAKI LARRAÑAGA 'LARRA' GITARRA IRAKASLEA ETA IKASLEA

Iñaki Larrañaga Dj lanetan aritu zen duela urte batzuk. Pandemia garaiko itxialdian, gitarra ikasten hasi zen, bere kasa. Dani Iglesias gitarra irakaslearengana jo zuen gero, eta oraintsu lehen kanta plazaratu du. Larrak aitortu digunez, "Daniri esker hasi naiz abestiak idazten".

Larra Dj-a ezagutzen genuen. Larra kantaria ordea, ezezaguna zitzagun. Noiz bilakatu da Dj-a kantari?

Iñaki Larrañaga: Nik nire lehen taldea Santueneko lagun batzuekin osatu nuen. Talde horretan teklatau jotzen nuen. Gero, 25-26 urterekin, Sugoi taldea eratu genuen. Heavy estilokoa zen eta ni taldeko kantaria nintzen. Entsegu asko eta emanaldi gutxi eskaintzen genituen. Egia da adin ezberdinekoak ginela, batzuk lanean geunden, besteak ikasten... Eta zaila egiten zitzagun taldearen martxa jarraitzea. Urte batzuen ondoren, Sugoi taldea desegin eta Goenkale-n hasi nintzen aktore lanak egiten.

Benetan?

I. L.: Bai, bai. Kar, kar, kar. Atal batzuetan atera nintzen baina ez nintzen figurante hutsa, testua ere banuen. Lanean ari nintzen ordurako, eta Goenkale-ko minutu bat grabatzeko goiz osoa galdu behar nuen lantokian. Ez zen bideragarria eta telebistakoa uztea erabaki nuen.

Dj-a ere izan zara urtetan.

I. L.: Andoni anaiaren ezkontzan Dj bat aritu zen. "Horrek egiten duena zuk ere badakizu egiten", esan zidan emazteak. Eta horrela hasi nintzen. Haritz Harreguyk lagundu zidan, soinu ekipoa berarekin erosi nuen. Ekipo handiagoa

edo argiak behar nituenean, Donostiako Bengoa Audiovisuales enpresakoei alokatzen nien. Halako batean, Bengoakoek aipatu zidaten Dj baten premia zutela eta ea animatuko nintzen. Horrela hasi nintzen ezkontzetan, eta festetan ere asko ibili nintzen.

"DANI IGLESIAS NIRE ETXE ONDOAN BIZI DA ETA BERTAN EMATEN DITU GITARRA ESKOLAK"

IÑAKI LARRAÑAGA, 'LARRA'

Hemengo jai askotan ere aritu zinen lanean.

I. L.: Urte batzuk egin nituen baina erre egin nintzen. Ezkontza bat nuenean, egun osoa etxetik kanpo egoten nintzen. Ardura ere handia zen, batez ere ezkontzetan.

Astean zehar lantegian aritzen zinen eta, asteburuetan, Dj modura herriz herri.

I. L.: Neketsua zen. Eta Dj gisa ibili nintzen azken garaian bereziki, asko gogaitu nintzen musika estiloarekin. Reggae-toia asko zabaltzen hasi zen eta ni ez nintzen estilo horrekin eroso sentitzen. Kaffa kafetegian hasi ginenean, orduantxe utzi nuen Dj lana. Zaila egiten zitzaidan bi gauzak uztartzea.

Larra kantariaren ibilbidea ordea, berri samarra da, ezta?

I. L.: Pandemia garaian, hila-bete egon ginen etxe barruan. Atera ezinik. Semearen gitarra genuen etxean eta zerotik hasi nintzen. Youtubeko tutorial batzuekin akordeak ikasi nituen eta horrela ekin nion. Gustagarria egin zitzaidan eta irakasle batekin has-tea erabaki nuen. Herri honetan gitarrajole asko dago. Denei galdetzen nien eta batzuk topera zebiltzan, beste batzuk utzi berri... Eta azkenean, nire auzoan bertan topatu nuen soluzioa.

Dani Iglesias nire etxe ondoan bizi da eta bertan ematen ditu gitarra eskolak.

Zu Dani, musikaria zara eta horretaz gain gitarra eskolak ematen dituzu, ezta?

Dani Iglesias: Unibertsitateko ikasketak bukatu eta gero, Iruñean hasi nintzen gitarra eskolak ematen. Astean hirutan joaten nintzen Iruñera. Beste bi egun nituen libre, eta hemen hasi nintzen eskolak ematen.

Nire semea jaio zenean, ez nuen astean hirutan Iruñera joan nahi. Hemen inguruan gainera, gero eta ikasle gehiago nituen.

→ **Usurbilen lokal bat duzu eta bertan ematen dituzu eskolak, ezta?**

D. I.: Duela bost urte hasi nintzen nire lokalean eskolak ematen. Ordura arte etxez etxe ibiltzen nintzen, eta oraindik ere hala nabil, baina batez ere lokalean ematen ditut eskolak. Horretarako propio egokituta dago eta eskolak emateko toki aproposagoa da.

Andoaindik eta Villabonatik ere etortzen dira hona gitarra ikastera.

Grabazio-lanak ere egiten dituzu zure estudioan.

D. I.: Beti erakarri nau. Soinu teknikari lanak egin izan ditut eta grabatzeko joera ere badut. Hemen inguruan estudio oso onak ditugu eta sekula ez dut halako estudio bat egiteko asmorik izan. Baina bestetik, nire gitarra ikasle askok ez dute talderik, eta abestiren bat sortzen badute, ez dute kanta hori modu txukun batean grabatzeko modurik. Nik maketak edo demo-ak egiteko aukera eskaintzen diet. Askok nahi dutena grabazio txukun bat baita, eurentzako, edo euren inguruko arteen zabaltzeko.

Musikaria zara, eskolak ematen dituzu, grabazio-lanak egiten dituzu... Musikaren adar guztiak menderatzen dituzu, ezta?

D. I.: Azken batean, ogibide honi heldu nahi badiozu, de-



'Bizi' abestia Larraren Youtube kanalean entzun daiteke. Beste bi abesti ari dira grabatzen, Dani Iglesiasen estudioan.

netarik egiten jakin behar duzu; eta aukera guztiei heldu.

Larra, oraintsu kanta bat eman duzu argitara. Gitarra ikastearekin batera piztu al zaizu sortzaile zena?

Iñaki Larrañaga: Daniren kulpaa da. Berak animatu ninduen. Behin esan zidan, "hurongo asterako ekarri ezazu zuk egindako abesti bat". Ze

esaten duzu? Erantzun nion. "Bai, dakizkizun akordeekin abesti bat egizu". Eta lehen aldiz nire burua entzun nuen, asko harritu ninduen zein ondo entzuten zen dena.

Gitarra jotzen erakustez gain, zure ikasleei sortzaile sen hori pizteko joera duzu, Dani?

Dani Iglesias: Bai, niri gitarrajole bezala asko motibatzen

nau sortzeak. Besteen kantak jotzen ikastea oso ondo dago baina zure kantak sortu eta jotzea bezalakorik ez dago. Ikasleek ematen dituzten urrats guztiak nik ere igaro ditut aurretik. Lehen grabazioak kaskarrak dira baina hobetzeko tarte beti dagoenez, horrek asko motibatzen zaitu eta asko lotzen zaitu musika instrumentura.

"GITARRAJOLE BEZALA, ASKO MOTIBATZEN NAU SORTZEAK"

DANI IGLESIAS

"DANIRI ESKER HASI NINTZEN NIRE KANTA PROPIOAK EGITEN"

IÑAKI LARRAÑAGA, 'LARRA'

Ekoizpen lan majoa dago 'Bizi' kantaren atzean.

D. I.: Sortze-prozesua gutxi-naka egin dugu. Gitarra grabatu genuen eta horren gainean joan gara beste instrumentu guztiak gehitzen, koroak...

Unai Muñoaren hitzekin edertua

Abestiak entzunaldi asko izan ditu oso denbora gutxian.

I. L.: Oso harrigarria izan da niretzat. Ez genekien kantaria zinenik, ze ederra abestia... halakoak esaten dizkirate eta harrিতuta nago izan duen erantzunarekin.

Letra Unai Muñoarekin batera osatu duzu, ezta?

Nik ideia eman nion eta berak idatzi zuen. Doinua idazten dut lehenbizi. Metrika jakin bat zehazten diot Unairi eta berak letra neurri horretara egokitzen du.

Kanta gehiago etorriko dira?

I. L.: Bai, eta letrak ere Unairenak izango dira. Bera ere oso pozik dago emaitzarekin.



"Nik ideia eman nion Unairi eta berak idatzi zuen kantaren letra".



Txalapartaren inguruko hainbat ekitaldi antolatatu dituzte azaroaren 9rako.

Badator Txalaparta Eguna

Jexux Artze Kultur Elkarteak egitarau oparoa iragarri du azaroaren 9rako.

Maiatzaren 3an Jexux Artze hil zeneko urtemugaren harira antolatu izan ditu bere omenez sortutako kultur elkarteak ekitaldi zikloa baita azken urteotako Txalaparta Eguna ere.

Aurten, ordea, Salvadortarren kontzertua antolatzea eta, aldiz, Txalaparta Eguna udazkenera atzeratzea erabaki zuten. Maiatzean, Usurbilen izan ohi den kultur eskaintza oparoa eta txalapartaren bueltan hilabete horretan Euskal Herrian antolatzen diren ekitaldiak tarteko hobetsi zuten Jexux Artze Kultur Elkarteko kideek Txalaparta Eguna urte garai honetan ospatzea.

Eguna zehaztu dute jada. 2024ko Txalaparta Eguna azaroaren 9an ospatuko da. Hona hemen osatu duten egitarauaren berri:

Azaroak 9, larunbata

- 10:00 Kanpaiak jotzea (garai batean Artzetarrek egiten zuten erara).
- 12:00 Txokoaldeko Txalaparta Txokoan Oreka Tx eta mokadutxo.
- 14:00 Ibilaldia Erriberatik Albokariekin.
- 15:00 Bazkaria Aginaga Sagardotegian. Txartelak salgai azaroaren 5era arte: helduenak 39 eurotan salgai usurbilkultura.eus plataforman. Haurrentzako txartelak 25 eurotan usurbiltxalaparta@gmail.com helbidean.
- 17:00 Madrilen Txalaparta taldearen emanaldia Aginaga sagardotegian bertan.
- 20:30 Fanfarrikant eta txalaparta kalejira herrigunean.

Antolatzaileak:
Jexux Artze Kultur Elkarte eta
650 Usurbil Bizi!



Iban Zaldua idazlea Sutegin izan zen.

Eskaintza zabala liburutegian

Iban Zaldua idazlearen aurreko asteko bisitaren ondotik, astero ekitaldi bat programatu du Sutegi udal liburutegiak azaroa amaierara arte:

Urriak 30, asteazkena

- 18:30 "Konta ditzagun ipuinak" saioa Ixabel Agirresaroberekin. 5-8 urte arteko haurrentzat eta haien guraso edo zaintzaileentzat.

Azaroak 5, asteartea

- 19:00 Jon Artanoren "Juana" liburuaren aurkezpen-solasaldia egilearekin.

Azaroak 13, asteazkena

- 18:00 Ipuin-kontaketa Miriam Mendozarekin, HH3-HH5eko haurrentzako.

Azaroak 19, asteartea

- 18:30 Irakurketa solasaldia Yolanda Arrietarekin LH6-DBH1eko gaztetxoentzat.

Azaroak 27, asteazkena

- 18:00 Irakurketa solasaldia Yolanda Arrietarekin, LH3-LH5eko ikasleentzat.

Izen-ematea:

Aurrez egin behar da, Sutegi udal liburutegian. Oharra: solasaldiotarako liburuak liburutegian bertan daude eskuragarri.



Azaroaren 14an amaituko da kanpaina.

Errigorako hiru saski aukeran

"Agerreko uzta euskarari puzka" ekimenaren baitan, azaroaren 14ra arte Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko produktuez osaturiko saskiak eskatzeko aukera izango duzue errigora.eus bidez nahiz beste urte batez, ekimenarekin bat egin duen NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

Hauek dira aukeran izango dituzten saskiak:

- Beltza (55 euro): piperrak, zainzuriak, orburuak, kardua, potxak, borraja, tomate, teila, mahats zukua, ardo beltza, ilarrak eta patxaran mantekatuak.
 - Berdea (65 euro): piperrak, zainzuriak, orburuak, txitxirioak, pasta, dilista lehorrak, ardo-ozpina, tomate frijitua, sagar zukua, konbutxa tea, txokopipitak, teila eko eta haritz ardo beltza.
 - Gorria (75 euro): ardo apartsua Rosé, ardo beltza krianza, ardo txuria, patxarana, mantekadak, polborioak, txokolatezko molineritoak, zainzuriak, turroia, piperrak eta ardi-gazta.
- Oharra: saskiarekin batera, 5 euroren truke "Agertuz" kartajokoa eskuratzeko aukera.

Elkartasuna

Gogoan izan, erosketa hauen truke jasotako laguntzaren laurdena bertako euskalgingtzara bideratuko dute.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867



Duela 30 urte eratu zen Oilarrak taldea. Gaur egun, 20 abeslarik osatzen dute kantu taldea.

Oilarrak talde zuberotarra Sutegin arituko da azaroaren 9an

Oilarrak taldea duela 30 urte sortu zen Zuberoan. Musika-riak eta kantariak aritu izan dira elkarrekin eta gaur egun 20 lagunek osatzen dute taldea. 1994tik hona, ekitaldi ezberdinetan hartu dute parte eta

hainbat disko grabatu dituzte. "Taldea amateur honen barmen 5 albüm kontatzen dütüğü. Xiberotar azentüa eta bortüetako botzen ozentarzüina atzaman daiteke: artzainen kantore, besta edo ezkontzetako

kantore... Errepertorio handi bat non akapela kantoreak edo instrumentuen bidez diren bertsiö zunbait aldizkatzen diren", Oilarrak taldekoek jakinarazi digutenez. "Hala nola, akordeioa, perkusio, gitarra, xirula edo biolina".

Zeltiar kutsuko melodiak ere abesten dituzte. Zuberoako kantarien esanetan, "azken hauek Irlandako tabernetan sortzen den giroa" ekar dezaketegogora.

Pastoraletan trebatuak

Pastoraletan ere kantari aritutakoak dira. "Matalaz pastoralajokatü dü bedatse hun-

ta, arrakasta handia üken dina", Oilarrak taldeko kideek azaldu digutenez.

Eguerdian kalejira, arratsaldean kontzertua

Usurbilen eskainiko duten emanaldian, "püblikoak, haren kantore libürüxka jarraikiarazten ahalko dü harekin, talde honi süstengü ekarteko, nola ez Usurbileko belaünaldi güzier plazerra ekarteko".

Azaroak 9 larunbata

Esan bezala, 20 lagun etorriko dira Zuberoatik. Eguerdiko 12:00etan kalejiran ibiliko dira eta arratsaldeko 18:00etan kontzertua eskainiko dute Sutegin.

Zuberoako ikastolen aldeko kanpainarekin bat

Nafartarrak taldeak antolatu du Oilarrak taldearen emanaldia. Eta emanaldi honen bitartez, Zuberoako ikastolen aldeko kanpaina sustatu nahi dute. Iaz bezala, NOAUA Kultur Elkartearen egoitzan egin daiteke saskien eskaera, edo online bestela, ikaskoli.eus web orrialdean.

Saskien banaketa abenduaren erdialdean egingo da eta NOAUA!ko egoitzan jaso ahal izango da.

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak eskatzeko garaia iritsi da

2003. urteaz geroztik, Zuberoan kokatzen diren bi ikastolek (Alozekoa Basaburuan eta Eperra Pettarrean) tokiko produktuekin osaturiko saskiak jartzen dituzte salgai.

Kanpaina honek hortaz, bi onuradun nagusi ditu: Zuberoako ikastolak eta Zuberoako ekoizle txikiak. "Saskia osatzen duten osagai guztiak, produktio ttipiko ekoizleenak dira. Kalitate handikoak, bertan ekoiztu mozkinak eskaintzen dituztenak".



Pettarra saskia.

Pettarra (50 euro)

Ahate gibel berrosatua, ezitia, ardi gazta kiloa, bixkotx gatzatuak, pastak.



Arbaila saskia.

Arbaila (57 euro)

Eztia, bixkotx artisanalak, bi gazta zati, bixkotx gazituak, erreximenta, tisanak, pastak.



Basabürüa saskia.

Basabürüa (68 euro)

Xerri pateaa, bixkotx artisanalak, ardi gazta kg., xahalki axoa, lukainka idorra, pastak.



Hamaikakoa

Goiko eta beheko irudi hauek ez dira guztiz berdinak. Erreparatu ongi eta bien arteko aldeak ikusiko dituzu: hamaika dira guztira.



Bakoitzari berea

Hona hemen jostun tresna batzuk. Lotu bakoitzari bere izena.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu armiarna hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 10.



Itzala

Beheko hegazti migratzaile horiek berandu samar dabiltza, ezta? Beren kide guztiak joan dira dagoeneko! Aurki ezazu beren itzal zuzena.



Hau beldurra!

Azaroa gainontzeko hilabeteak baino beldurgarriagoa da, Gau Beltza eta Halloween izaten direlako, besteak beste. Egun berezi horietako elementu hauen artetik lau bi aldiz ageri dira, eta bi, berriz, hiru aldiz. Azpimarra itzazu.



Animalia hori zein den badakizu, ezta? Sekulako puzkarrak botatzen ditu bere burua arriskuan ikusten duenean... Bere izenak T, O, E, F, M eta A letrak ditu, eta horiekin sudoku hau osatu behar duzu. Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

E				M	
F		T		A	
		E	M		
	O		E		A
	E			O	F
	F	A		E	

Labirintoa

Amona Miren azokara doa. Gaztainak, udareak, kuiak eta mandarinak nahi lituzke, eta hurrenkera



horretan erosiko ditu. Amona Miren dagoen leihotik hasi, eta saskiraino iritsi behar duzu, sekuentzia horri jarraituz beti. Mugitu laukiz lauki, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean.

Batu hemen laukiz lauki bildu dituzun hizkiak eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Euskarazko sorkuntza plazara, Booktegi Egunarekin

Euskarazko sorkuntza guztion esku sarean jartzen diharduen Booktegi elkartearen jaialdia ospatu zuten larunbatean.

Letrak hizki larriz aldarrikatzeko eguna izan zen urriaren 26a Usurbilen, Booktegi elkartearen jaialdiarekin. Euskal kultura formatu ezberdinetan ekarri zigun hirugarrenez Sutegi eta Zumarte Musika Eskolako ganbara artean ospaturiko hitzorduak. Maileguei eta opariei buruz hainbat euskal sortzaileek ondutako ipuinak elkar irakurri eta komentatzen aritu ziren. Herrikideek eta bisitariak hitza hartu zuten, oraingo honetan, ordea, haiek edo ekitaldian parte hartutako lagunek hau-

tatuko poemak-amatasuna, pentsioak, Palestina... hizpide zutenak- errezitatzeko. Belau-naldi berriena, LH5. mailakoak ere zereginotan aritu ziren. Euskarazko sorkuntza sustatzen diharduen Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" egitasmoari ere tarte egin zion Booktegi jaialdia, udal ordezkari eta kultur gileek eginiko aurkezpenaren eskutik. Mikel Martinezen "Hamalau" antzezlanak edota Habiak taldearen emanaldiak osatu zuten Esther Sound Sister DJ-ak borobil-dutako eguna.




Yolanda Arrieta, poesia errezitaldiko parte hartzaileetako bat.



Mailegua eta oparia hizpide izan ziren "Elkarri Irakurriz" solasaldian.



Udarregiko LH 5. mailako ikasleek eskainitako poesia emanaldi dramatizatua.



Habiak taldeak eskainitako emanaldiaren une bat.



Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" egitasmoa aurkeztu zuten.



Donostiako Hiria Antolatzeke Planeamenduaren aurrerakina aurkeztu zuten urriaren 22an, Kaxkapen.

Etorkizuneko Zubietak diseinatzen Donostia

Plan Orokor berriaren diseinu lanari lotutako parte hartze prozesua abiarazi du Donostiako Udalak. Aurrerakinak bildutako proposamenak aurkeztu eta zubietarren ekarpenak biltzeko saioa egin zuten urriaren 22an Kaxkapen.

Bertan jasotakoa gero sarean ikusgai jarri asmo dute partehartu.donostia.eus helbidetan hain zuzen. Posta elektronikoko helbide hau ere herritarren eskura jarri dute: udala_partaidetza@donostia.eus

Aipatu web orrialdean sartuta, Gipuzkoako hiriburuko udalak plazaraturiko etorkizuneko plan orokorraren aurrerapena gaika eta zonaldeka kontsulta daiteke, ekarpenak egitearekin batera. "Deliberazio fasearekin amaitu ondoren, itzulera fase bat jarriko da martxan. Entzute eta deliberazio fasean jaso diren proposamen guztiak Udalarekin partekatu eta aztertuko dira. Itzulera fasean, erantzun kolektibo bat eman go zaio prozesuari, amaiera sintesi-txosten publiko baten

bidez", aurreratu du Donostiako Udalak.

Herri izaerari eustea

Gipuzkoako hiriburuko Udaltetik aurreratu dutenez, "HAPO berriak ez du garapen berezirik proposatzen" Zubietarako. Horrez gain, "indarrean dagoen HAPOan urbanizagarri diren hainbat eremu sailkapenetik kentzea proposatzen du". Zehaztu duenez, "lur ez urbanizagarriari eta ingurune naturalari dagokion atala da".

Aurrerakinak diagnosia eta hainbat proposamen biltzen ditu. Diagnostikari dagokionean, azterlan honek jasotzen du Zubietak duen "herri izaera mantentzeko nahia", landa-eremuaren paisaiaren kalitatea, Eskuzaitzetako industria-poligonoa, futbol zelaia eta hipodromoa edota Usur-

bilekiko eta Lasarte-Oriarekiko duen hurbiltasun fisiko eta funtzionala. Euskarak hiriburuko lurretan duen egoera onena Zubietan duela aipatzen du, "Igeldorekin batera". Aldiz, airearen kalitateari dagokionean, honakoa aipatzen du; "ozonoari dagokionez, Zubietako estazioak ditu balio altuenak". Mugikortasunari dagokionean, Zubietak "hiri garraio publikotik deskonektatua eta hiriarteko garraio publiko na-

"URBANIZAGARRI DIREN HAINBAT EREMU SAILKAPENETIK KENTZEA PROPOSATZEN DU"

gusiko saretik urrun" dagoela ohartarazten du, "kokalekuagatik", zehazten duenez.

2020ko udazkenean Usurbilgo Udalak eta Zubietako Herri Batzarrak sustaturiko "Guk Zubietan zer?", parte hartze prozesuko hainbat ekarpen ere aipatzen ditu "ibaia eta espazio publikoa, mugikortasun aktiboa eta kolektiboa, nekazaritza eta basogintza, etxebizitza, ostalaritza eta merkataritza...".

Proposamenei dagokienez, "nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzorua udalerriko jarduera ekonomikoaren sistemaren parte" izanik, "lurzoru urbanizaezinaren sailkapen berria" sustatzea proposatzen du. Adibide gisa jarri ditu, "Aldatseta eta Lizarraga". Aldatsetako bizitegi-sektorea ia erabat sailkapenez kentzea eta duen "balio paisajistikoa balioestea" proposatu du, "etxebizitza asko proposatu baitziren".

Tellerialde eta Bugati

Beste bi proposamen zehatz ere planteatzen ditu. Batetik, "Tellerialdeko bizitegi-lurzorua ekipamenduetara bideratzea" eta modu horretan, "Zubietako kirol-jardueren kontsolidazioa" sustatzea. Bestetik, "Merkabugatiko eremuari jarraipena eman nahi zaio". Zubietak erdigunea, bestalde, sendotzea proposatzen da, "eremurako irisgarritasuna hobetzea eta garapen txikiko etxebizitzak eraikitzea". Hipodromoaren iparraldeko Tellerialde eremua berrantolatzea proposatzen du Donostiako Udalak, "bizitegi-garapen berri bat aurreikusiz eta hipodromoko ataurerian hiri-plaza bat eratuz; Oria ibaiaren ezker aldeko ibaiertza antolatzea tratamendu bigun baten bidez, oinezkoentzako eta bizikletentzako bide bati jarraikortasuna eman eta ibaiertzeko zuhaitzen lerrokadura lehengoratzeko ahalbideratuz; uholde-arriskua murrizteko neurri zehatzak hartzea".



Argazkikoa Beñi Agirre idazlea eta historialaria da, "Giza habitat ezkutatua" erakusketa Bergaran antolatu zutenekoa.

Nafartarrak-en zikloa hemen da

Erakusketa eta jardunaldi eguna iragarri ditu aste honetarako Nafartarrak Kultur Elkarteak. Segidan dituzue xehetasunak.

Urriak 28-31. "Habitat. Giza habitat ezkutatua" erakusketa
 • 18:00-20:00 "Habitat. Giza habitat ezkutatua" erakusketa.
 • Zehaztasunak: "Klima, paisaia eta izaki bizidunekin

batera, giza habitataren parte banandu ezinak dira: hizkuntza, kultura eta erakundeak. Bizi nahi duen herriak bere historia kontatu behar du". Erakusketa hau Naba-

rralderen eskutik iritsiko da Sutegira. 14 hormairudi edo paneletan jasota dago Euskal Herriko historia, "bere osotasunean eta testuinguruan jarrita, baina modu erraz eta sintetikoan. Izan ere, horrelako zerbaiten falta sumatzen genuen".

Azaroak 2, larunbata. "Konkistatik asimilaziora" solasaldia

• 10:00-13:30 "Konkistatik asimilaziora. Gure lurrean gungu nagusi" jardunaldia Sutegin.

• Zehaztasunak: "Mende luzeetako konkista eta zapalkuntzaren ondorioz, euskaldunoi (nafarro) gure izatea eta nortasuna ezabatu dizkigute, ia. Guda bidez lehenik, gure lurra, legea eta hizkuntza kenduta, eta lotsarazita, gutxietsita, gero. Memoria historikoa ez da 1936an has ten. Badirudi euskaldunok (nafarro) Espainia barruan pribilegiatuak garela, kontzertu ekonomikoa eta foru hobekuntza dauzkagulako; kendu diguten guztiaren hondarrak (besterik ez) direnean. Eta frantziarrek ere berdin iparraldean 1620 eta 1789an. Guzti honetan saktontzeko jardunaldia izango da azaroaren 2an, Sutegin, goizeko 10:00etan hasi eta 13:30era bitarte. Denera zortzi hitzaldi labur izango dira, eta tartean, atsedenaldira txikia".

• Hizlariak: Iñaki Idigoras, Koldo Martinez Garate, Maier Anabitarte, Idoia Arrieta, Beñi Agirre, Joxe Manuel Odriozola, Eneko Bidegain eta Ane Ablanedo.
 • Antolatzailea: Nafartarrak.
 • Laguntzaileak: Udala eta Nabarralde Fundazioa.
 • Sarrera: doan.

Asier Azpiroz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalurrekoaren atarian

Final-zortzirenean gertatu zen gauza bera gertatu zen aurreko larunbatean Azkoitian. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdena jokoan zen eta saioaren amaieran, berdinketa emanzen lehen bi sailkatuen arteko puntuzioan. Unai Mendizabalek eta Asier Azpirozek 485,5 puntu-na eskuratu baitzituzten.

Amagoia Mujika GARAKO kazetariaren kronikan topatu genuen berdinketa hausteko epaimahaiak baliatu zuen irizpidea: "Epaile bakoitzaren

ariketaz ariketako sailkapena kontuan hartuta, Mendizabal kasu gehiagotan geratu zen Azpirozen aurretik". Horregatik eskuratu zuen lehen postua Unai Mendizabalek.

Final-laurdenetako talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasako da finalurrekora; eta horiekin batera pasako dira puntu gehien batzen dituzten beste hamahiru bertsolari. Beraz, Asier Azpirozek Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalurrekora sailkatzeko aukera asko ditu.

Familia giroko ibilaldia Santuenetik Txokoaldera

Santuenetik Txokoaldera joan-etorria antolatu du Santuenea Kultur Elkarteak igandera, azaroaren 3rako. Txokoalden gainera, orientazio jolasak egin asmo dituzte familian. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, "umeen organo eramateko ibilbide egokia" da honako hau. Igandean, goizeko 10:00etan abiatuko da Usurbilgo Udalak lagundutako ibilaldia Santueneko frontoitik.

Asier Kidam magoa Txokoalden izango da azaroaren 9an

Asier Kidam magoa Txokoalden Txokoalden izango da datorren azaroaren 9an, larunbat arratsaldean. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da ekitaldia.



Asier Kidam magoa.



'Bertso bira' Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lankuk sustatzen duten kanpaina bat da. Irudia, artxibokoa da.

'Bertso bira' Egurtzegiko egoitzatik igaroko da

Urriaren 31n osteguna, Ane Labaka eta Anjel Mari Peñagarikano bertsotan arituko dira Egurtzegiko egoitzan, goizeko 11:00etan hasita.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lankuk, lurraldeko adinekoen egoitzekin lankidetzan, "Bertso Bira" ekimenaren edizio berria antolatu dute. Urriaren 28an izango da aurreneko saioa, guztira 30 izango dira, eta ostegunean Usurbilen, goizeko 11:00etan hasita, Egurtzegiko zentroan Ane Labaka eta Anjel Mari Peñagarikanoren eskutik.

Ekimenaren helburua bertsolaritzaren bidez adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da eta gaitasun kogni-

tiboak sustatzea. Horretarako, euskal kulturaren adierazpenik garrantzitsuenetako bat plazaratuko dute: bertsolaritza. Guztira 30 saio egingo dira

**"HELBURUA
EGOILIARREN
BIZI-KALITATEA
ETA GAITASUN
KOGNITIBOAK
HOBETZEA DA"**

Gipuzkoako 24 udalerritako egoitzetan eta bat-bateko bertsoez gozatzeko aukera eskainiko dute. Saio bakoitzean, eskualde bereko eta belaunaldi ezberdinetako bi bertsolarik hartuko dute parte; 34 bertsolarik, guztira. Usurbilen kasuan, Ane Labaka lasartearrak eta Anjel Mari Peñagarikano albizturtarrak.

Bertsolaritzaren indarra

Saio bakoitzaren aurretik, egoitzetako animazio eta dinamizazio-taldeetako langileek egoitza bakoitzeko egoiliarrekin egiten dutelana, bertso zahar eta abesti herrikoien gainean dituzten edo izan ditzaketen gustuak eta lehentasunak eza-gutzeko. Horrela, bertsolarien parte-hartze aktiboa sustatzeko aukera sortzen da, eta horrek parte-hartzaileen eta artisten arteko lotura indartzen laguntzen du. Modu horretan, saio bakoitza oso pertsonalizatua da.

Kzguneko datozen ikastaroak

Urriaren 31ra arte arratsaldean, 16:00-20:00 artean irekiko dute Usurbilgo KzGunea, azaroaren 4tik aurrera goizez, 9:00-13:00 artean. Hona hemen, bertara datozen ikastaroen berri:

- Azaroak 4-15, 9:00-11:00: "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".
- Azaroak 18-29, 9:00-11:00: "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Informazio gehiago:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Santueneko bertso-afaria, Interneten ikusgai

Santuenea Kultur Elkartek eta Ibai-Ondok antolatu eta Usurbilgo Udalak diruz lagundutako urriaren 19ko hitzorduan parte hartu zuten Maialen Lujanbiok eta Uxue Fernandez zein Unai Muñoa bertsolari herrikideek. Ibai-Ondo elkartearen eginiko saioa bidez grabatu zuten. Youtuben duzue ikusgai, <https://www.youtube.com/@onintzagartzia5822> kanalean.



Maialen Lujanbio, Unai Muñoa eta Uxue Fernandez aritu ziren kantari.



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL



© 943 362725 · © 688 690 361



Paralinpiar Jokoen aurretik, Nahia Zudaire bi domina eskuratu zituen Madeiran jokatu zen Europako Txapelketan.

"Burrunba ikaragarria zegoen igerilekuan eta giro itzela"

NAHIA ZUDAIRE IGERILARIA

Bigarren izan da Nahia Zudaire igerilari zubietarra Paralinpiar Joko batzuetan. Tokion estreinekoz aritu ondoren, Parisen izan da nazioarteko lehiaketarik handienean parte hartzen.

Tokion izan zinen, Parisen orain. Esperientziak oso ezberdinak izan dira? Nola sentitu zara?

Oso esperientzia ezberdinak izan dira niretzat. Tokion izan nintzenez orain baino hiru urte gutxiago nituen. 2020an izan behar zuten Joko haiek, baina pandemia kontuengatik urtebete atzeratu behar izan zituzten, eta beraz, Parisko Jokoak izan arte hiru urte pasatu dira. Lehen kontaktua izan nuen bertan Joko batzuekin, eta puntu horretara iritsita ezjakintasuna eta espero daitkeena neurtzea ere zaila da. Denoi gertatzen zaigu galdu samar sentitze hori. Oraingoan, berriz, hiru urtez prestatzeko aukera izan dut eta nolabait,

ziklo paralinpiko osoa bizitzeko aukera izan dut. Hiru urte izan ditut bai fisikoki, bai eta mentalki ere horretarako prestatzeko. Parisko Joko hauek oso bereziak izan dira niretzat, jendearen berotasun ikaragarria sentitzeko aukera izan dudalako eta senitartekoekin egunerokotasuna bizitzeko aukera izan dudalako. Tokion, pandemiagatik ez genuen aukerarik izan jendaurrean aritzeko eta telebistatik jarraitu gintuzten denek. Ez dauka zerikusirik igerileku huts batera joateak edo jendez gainezka dagoen batean egoteak jakinda familiarteko eta lagunak gertu dituzula. Esperientzia ezberdina da zentzu guztietan.

Aurreikusitako emaitzak lortu dituzu? Zein ziren zure helburuak?

Bai, aurreko askoz gehiago zentratu naiz nik egin eta lor dezakedan horretan aurreko Jokoei konparatuta. Ohikoa izaten da besteen marka eta helburuei begira egotea guk geuk lor dezakegun horri baino, baina esperientziak ere

"NEURE BURUARI ALDEZ AURRETIK JARRI NIZKION HELBURUAK BETETZAT EMATEN DITUT"

erakusten du hori. Nire gaitasun eta momentua modu zabalagoan ezagutzen ditut, eta ez nengoen horrenbeste gaitasunak begira, neure buruari baino. Neure buruari jarri nizkion helburuak betetzat ematen ditut zentzu horretan. Ondo aritu naizela uste dut. Ez da urte erraza izan, Jokoen presioa gogor sentitu dudalako eta bazetozela ikusita egin behar horrek zaildu egiten du prestaketa lana ere. Hala ere, nik uste egon behar dudan lekuan nagoela orain.

Lagunak eta senitartekoak ere ikustera joan ziren. Sentitzen zenuen haien gertutasuna?

Ez nituen ez ikusten, ez entzuten ere. Burrunba ikaragarria zegoen igerilekuan eta giro itzela, beraz, pertsona konkretu batzuk entzun eta ikustea ia ezinezkoa da. Aukera izan nuen gero gurasoekin egoteko eta senitarteko eta lagun batzuekin ere bai. Denekin ez, baina askorekin bai. Gogoan dut egun batean lagunak ikusi nituela igeri egin aurretik, kartel oso koloretsuak zeuzkaten eta edonondik ikusteko modukoak ziren. Hala ere, orokorrean oso zaila da horrenbeste pertsona eta harko soinua dagoen leku batean pertsona konkretuak ikusi edota entzutea, baina lagunaren istoriotxo hori hortxe dago.

Olinpiar Jokoak hasi bezain pronto esan zuten igerilekua nahiko geldoa zela. Zuri ere inpresio bera egin zizun? Zer zioten horri buruz paralinpikoek?

Gure kasuan ez zen askorik nabaritu kontu hori. Paralinpikook, orokorrean, ez gara horren altuak izaten olinpikoekin konparatuta. Olinpikoen artean 1,90 metro neurtzen dituzten igerilari batzuk badaude, eta horiek jauzi egitean eta urazpian sartzean ia lurra ukitzen zuten. Beraz, horregatik esaten zuten igerilekua geldoa zela. Igerilarien altueraren arabera zen, nolabait. Gure kasuan, arazo


→ hori ez zen nabari, ez behintzat gure taldean. Are gehiago, esango nuke Paralinpiar Jokoetan jendeak oso azkar egin duela igeri eta errekorrak ere nahikotxo hautsi zituzten. Nik ere, modu pertsonalean, markak egin ditut eta azkar ibili naizela esango nuke. Oso pozik nago lortutakoarekin eta esperientzia ederra izan da.

Igeriketa paralinpikora ohituta ez daudenentzat nahasgarri gerta daiteke mailen kontuaren funtzionamendua ulertzea. Are gehiago S8 eta S7 edo bi maila nahastuta ibiltzen direnean. Azalduko diguzu nola funtzionatzen duen?

Nahiko gai konplexua da, baina laburki azaltzen saiatuko naiz igeriketa egokitua ikusi nahi dutenek funtzionamendua nolabait ulertu dezaten. Bakoitzak bere maila izaten du elbarritasun graduaren arabera. Hamar maila bereizten dira horren arabera eta bakoitzak bere probak izaten ditu S10-S1 tartean. Hala ere, hamar klase horien barruan hiru maila ezberdin daude. Croll, tximeleta eta bizkarrerako klase bat dago, brazarako beste bat eta estiloetarako beste bat. Nirekasuan, 8 maila naiz maila baterako, bigarreneko 7 eta hirugarreneko 8. Beraz, neure mailakoen aurka aritzen naiz eta nire klaserako markak egiten ahalgintzen naiz, nahiz eta batzuetan igerilekuan maila ezberdinetako jendea egon. Hori gertatzean, ulertu behar da bakoitza bere mailarako ari dela. Nahiko gai konplexua da, baina modu laburrean azaldu ta hori da.

Paralinpiar Jokoetan euskaldun dezente hartu duzue parte. Jendea ezagutzeko aukera ere izango da, ezta?

Euskaldun dezente geunden, bai, eta hori ere bazen helburuetako bat: ahalik eta euskal ordezkaritza zabalena eramatea. Tokiorekin konparatuta askoz ere aukera gehiago izan dugu harremanak egiteko ere.



"Hilabetetxo geldirik egon naiz eta orain normaltasunera itzuli eta helburu berriei heldu beharra daukat".

Oraingo honetan pandemiaren itzalik gabe, modu askoz askeagoan harremandu gara. Selektzio modura ere askoz elkartuago egon gara geure artean, denok batera helburu komunak lortzeko asmoz. Euskaldunon artean harreman oso politak egin ditugu, halakoetan hizkuntzak ere elkartzen gaituelako eta etxean ere sentiarazten duelako euskara entzun eta hitz egiteko aukera izateak. Halako aukera aprobetxatu beharra dago.

Espainiako selektzioarekin izan zara jokoetan. Gainontzeko igerilariarekin aritzeko aukera izaten duzue lehenago ere, edo batzuekin lehen aldiz elkartu zara?

Bai, ohiko igerilariarekin gain, beste batzuekin lehiatzeko aukera ere ematen dute Paralinpiar Jokoei. Nazioarteko txapelketetan dezente aritzen naiz eta jende asko ezagutzen nuen

lehenagotik ere. Paralinpiar Jokoetara iristeko ere lehiaketa asko egin behar dira, eta bide horretan jende askorekin topatu naizenez, Parisetara ia denak ezagutzen nituen. Hala ere, gure egoitzan Espainiako selektzioa eta Txinako geunden batera eta haiekin ia ez genuen harremanik izan. Gerora, igerilekuan bai: italiarrek, ingelesek... hala ere, Paralinpiar Jokoetara joatean lehiatzea da helburu nagusia, ez horrenbeste lagunak egin eta oporraldia izatea. Lortu nahi dugun horretan zentratzen gara, eta harremanetza kontuak bigarren edo hirugarren planoan hartzen du.

Behin Jokoak atzean geratu direnean, zein helburu dituzue datoren hilabeteetarako?

Hasi zaigu denboraldi berria eta, beraz, entrenatzen ere hasi naiz. Paralinpiar Jokoak pasa

zirenean oporraldi bat hartu eta kanpoan izan nintzen, baina jada hasi naiz egunerokoa-ri neurria hartzen. Momentuz, forma fisikoa errekuaratzea da epe laburrerako asmoa eta horretan dihardut. Hilabetetxo geldirik egon naiz eta orain normaltasunera itzuli eta helburu berriei heldu beharra daukat. Denboraldia datorren irailean amaituko da munduko txapelketarekin eta horretan zentratzen ari naiz pixkanaka-pixkanaka eta denboraldiaz gozatzen.

Los Angeles 2028 jarri duzue jomugan edo zein asmo duzue data horri begira?

Bai, egia esan badut Los Angelesen izateko intentzioa. Azken urteetan hartu ditudan bizitzako erabakiekin uste dut proposa izan daitekeela Joko batzuk prestatu eta parte hartzeko borrokatzea. Oraindik lau urte geratzen dira, eta denbora egongo da denerako, baina halako helburuak ditugunontzat, aldi berean, denbora gutxi da. Jokoak denborarekin eta mimoz prestatu behar dira, geure buruei helburuak jarri eta denboraldi bakoitzeko horiek hausten saiatu behar da. Goazen, bada, pixkanaka-pixkanaka lanera!

"NEURE MAILAKOEN AURKA ARITU ETA NIRE KLASERAKO MARKAK EGITEN SAIATZEN NAIZ"

"FORMA FISIKOA ERREKUPERATZEA DA EPE LABURRERAKO ASMOA ETA HORRETAN NABIL"

2025eko udal aurrekontuen aurkezpena

Udal gobernu taldeak prest du datorren urteko udal aurrekontu proposamena. Hainbat agerraldi iragarri ditu egunotarako.

Hurrengo urteko udal aurrekontuen proposamena aurkeztu eta herritarren nahiz eragileen ekarpenak biltzeko bilera erronda deitu du udal gobernu taldeak Usurbilgo herri eta auzoetan. Tokian tokiko proiektuak aztertuko dira, gainera. Hauek dira udal gobernu taldeak iragarri duen egutegia:

Azaroak 5 asteartea

- Atxegalden (Udarregiko jan-gela), 18:00etan.
- Txokoalden (Txokoargi), 18:00etan. Bestelako gaiak: Altzonazko zubiaren obra az-



Udal ordezkariak, irailean Txokoalden eginiko bilkuran. Azaroaren 5ean bueltatuko dira Txokoargira.

tertuko da Txokoaldeko bileran.

Azaroak 6 asteazkena

- Etxealdian (Potxoenea), 18:00etan.

Bestelako gaiak: Igogailua eta irisgarritasun plana aztertuko dute.

Azaroak 7 osteguna

- Zubietan (Kaxkape), 18:00etan.

• Bestelako gaiak: Bidegorriaren proiektua aztertuko dute. Arratsaldeko 18:00etan.

Azaroak 12 asteartea

- Potxoenean, 18:00etan.

Hamaikakoa

Goiko eta beheko irudi hauek ez dira guztiz berdinak. Erreparatu ongi eta bien arteko aldeak ikusiko dituzu: hamaika dira guztira.

Bakoitzari berea

Hona hemen jostun tresna batzuk. Lotu bakoitzari bere izena.

HARIA, KLARIZONA, TITAREA, JOSTORRATZA, KREMAILERA, KATEORRATZA, BOTOLA, GURAZTEA, ORRATZ BURDUNA

Haria: 9. Klarizona: 1. Titarea: 4. Jostorratza: 3. Kremailera: 6. Kateorratza: 5. Botola: 8. Guraztea: 2. Orratz burduna: 7.

Handienetik txikienera

Ordina itzazu armiama hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 10.

Itzala

Beheko hegazti migratzaile horiek berandu samar dabiltza, ezta? Beren kide guztiak joan dira dagoeneko! Aurki ezazu beren itzal zuzena.

Hau beldurra!

Azaroa gainontzeko hilabeteak baino beldurgarriagoa da, Gau Beltza eta Halloween izaten direlako, besteak beste. Egun berezi horietako elementu hauen artean lau bi aldiz ageri dira, eta beste bi, berriaz, hiru aldiz. Azpimarra itzazu.

SUDOKU

Animalia hori zein den badakizu, ezta? Sekulako puzkarrak botatzen ditu bere burua arriskuan ikusten duena... Bere izenak T, O, E, F, M eta A letrak ditu, eta horiekin sudoku hau osatu behar duzu. Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta diagonalean.

E	A	O	F	M	T
F	M	T	O	A	E
A	T	E	M	F	O
M	O	F	E	T	A
T	E	M	A	O	F
O	F	A	T	E	M

Labirintoa

Amona Miren azokara doa. Gaztainak, udareak, kuiak eta mandarinak nahi lituzke, eta hurrenkera horretan erosiko ditu. Amona Miren dagoen leihotik hasi, eta saskiraino iritsi behar duzu, sekuentzia horri jarraituz beti. Mugitu laukiz lauki, ezker, eskuin, gora edo behera eginaz, baina ez diagonalean.

Batu hemen laukiz lauki bildu dituzun hizkiak eta esatera zohar bat agertuko zaizu.

'Plazan Bazan' 12-13 orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajeen egon da. 620098748

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri serreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza tabernan sukaldari bila gabilta: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularak emateko. 647742588

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsalde (16:00-21:00) aritzeko prest. Harremanetarako: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

Pertsona helduak zaintzen, garbiketarako egiten izan elkarte zein etxebizitza partikularretan, lan bila nabil. Esperientzia daukat. Harremanetarako: 631 654 743.

BESTELAKOAK

Larunbatean giltza batzuk aurkitu nituen Troia beheko karretera eta trenbide artean. Udaltzainetan utzi ditut.

Hemengo aurtengo intxaurrek salgai. Telefono zenbakia: 943 671160.

Ikeako sehaska salgai, koltxoirik ez dauka (50 euro). Koltxo eta ohe-jantziekin osatutako sehaska txikia (20 euro). Hamaka bere kaxa eta guzti (50 euro). Uppababy ahulkia salgai (100 euro). Xehetasun gehiagorako: 652 765 583.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 31	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 01	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 02	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 03	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astelehena, 04	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astearte, 05	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteazkena, 06	KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1. Lasarte-Oria / 943 36 65 67
Osteguna, 07	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 08	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 09	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 10	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe 11 Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiaro Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

ZORION AGURRAK



Zorionak Axun! Ondo ospatu 93 urteak eta **zorionak Ekhi**, disfrutatutako 15 urteak. Muxu handi bat bioi etxekoan partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.



HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

► Asteleheneko 17:00ak arte jasotako emango ditugu argitaratu.

► Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 31

USURBIL Elkarguneari buruzko solasaldia eta Ilargiren kontzertua

19:30 Sutegi atarian.

OSTIRALA 01

USURBIL Artisautza Azoka

Goizetik eguerdira arte, frontoian. Ikus 06-07. orrialdeak.

LARUNBATA 02

USURBIL "Konkistatik asimilaziora: gure lurreen, gu nagusi" jardunaldia

Nafartarrak taldearen eskutik. 10:00-13:30 Sutegin.

ASTELEHENA 04

USURBIL Odol ematea

16:30-20:10 Udarregin.

ASTEARTEA 05

USURBIL Udal aurrekontuen aurkezpenak

18:00etan Atxegalden (Udarregiko jangela) eta Txokoalden (Txokoargi).



Nafartarrak taldeak hitzaldi sorta bat antolatu du larunbat honetarako.

'Konkistatik asimilaziora' hitzaldi sorta Sutegin

"Azken mendeetako guduen ondoren, euskaldunak gero eta gorputz gutxiago dugu. Esate baterako, Guda Karlistak galdu ondoren, euskarak 40 km atzera egin zuen". Pasarte hauetan sakontzeko asmoarekin, Nafartarrak taldeak hitzaldi sorta antolatu du larunbat honetarako. Sutegin batuko dira, 10:00etatik aurrera.

Azaroak 2 larunbata

- Ordua: 10:00-13:30.
- Tokia: Sutegi aretoa.
- Hizlariak: Iñaki Idigoras, Koldo Martinez Garate, Maier Anabitarte, Idoia Arrieta, Beñi Agirre, Joxe Manuel Odriozola, Eneko Bidegain eta Ane Ablanedo.
- Antolatzaileak: Nafartarrak.
- Babesleak: Udala, Nabarralde.

Elkargunea hizpide

"Zertarako behar dugu gazteok Elkargunea?". Galdera horren inguruan solasaldi bat antolatu du Aztarrika Gazte Asanbladak. Hausnarketarako tartearren ondoren, Ilargi bakarlariaren kontzertua hasiko da. Ostegun honetan batuko dira, Sutegiko atarian, arratsaldeko 19:30ean hasita.

Sagar eta Sagardo Kultura**Azaroak 14, osteguna**

• 18:00-19:30 "Sagastien bioaniztasuna: sagarrondoek zein bizilagun dituzte?", Iñaki Sanz Azkuerekin.

Azaroak 28, osteguna

• 18:00-20:00 "Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua", Aginagako Eliza Zaharrean.

Izen-ematea:

sagardoa@ni.eus
630 938 027.

Datorren astelehenean, odol-ematea

Usurbilgo Odol Emileen Elkarteak bi hilean behin lehen astelehenean eginiko deialdia bueltan dugu. Odol-ematea izango da azaroaren 4an, 16:30-20:10 artean. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie.


Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

www.noaua.eus

Praktika onak sustatzen: ERREFUSA

- ▶ Ontzi grisaren barruan atera behar da beti, inoiz ez poltsan
- ▶ Ontzian sartzen ez dena Garbigunera eraman
- ▶ Ontzia beti zintzilik utzi
- ▶ Ontzi bakoitzak bere kodea izan behar du, eta bistan utzi behar da



Errefusean ez



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza z/g (udaletxea)
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus



2025eko AURREKONTUAK AURKEZTEKO BILERA IREKIAK



URRIAK 29

Aginaga · Eliza Zaharra
*Eliza Zaharra, alagunea,
eta semaforoak*
Kalezar · Pelaiouena
Belmonte kaleko trafikoa

URRIAK 30

Santuenea · Frontoiko lokala
*Auzoko sarreraren berrantolaketa
eta autobus geltokia*
Munalurra · Eguzki

AZAROAK 5

Txokoalde · Txokoargi
Altzonazko zubiaren obra
Atxegalde · Udarregiko jangela

AZAROAK 6

Etxealdia · Potxoenea
*Kale Nagusiko igogailua eta
irisgarritasun plana*

AZAROAK 7

Zubieta · Kaxkape

AZAROAK 12

Kaxkoa · Potxoenea

Bilera guztiak 18:00etan izango dira

porrotx, Marimotots,
Pupu eta Lore

OSTIRALA IRITSI DA!!



Noiz: Abenduak 1, 11:30ean

Non: Oiardo Kiroldegian

Sarverak: 8€
usurbilkultura.eus webgunean

www.katxiporreta.eus



Antolazaileak:

